**Aipamen berezia**
*El motoarrebatador / The Snatch Thief*,
Agustín Toscano (Argentina-Uruguai-Frantzia)



Hiroshi Okuyama, Boku *wa Iesu-sama ga kirai / Jesus* filmaren zuzendaria, Kutxabank-New Directors sariarekin, Tadashi Yoshino ekoizlearen aurrean.




María Alché, *Familia sumergida* filmagatik jasotako Horizontes sariarekin.

## Zabaltegi-Tabakalera saria

*Song for the Jungle*,
Jean-Gabriel Périot (Frantzia)

**Aipamen berezia**
*Los que desean / Those Who Desire*,
Elena López Riera (Suitza-Espainia)

## Donostia Hiria Publikoaren saria

*Un día más con vida / Another Day of Life*,
Raúl de la Fuente, Damian Nenow
(Espainia-Polonia-Belgika-Alemania)

## Donostia Hiria Publikoaren saria / Europako Film onenaren saria

*Girl*,
Lukas Dhont (Belgika-Herbehereak)

## Euskal Zinemaren Irizar saria

*Oreina / The Deer*,
Koldo Almandoz (Espainia)

## Gazteriaren saria

*Viaje al cuarto de una madre / Journey to a Mother's Room*,
Celia Rico Clavellino (Espainia-Frantzia)

# Beste sari ofizial batzuk




Industria saileko jardueraetako saridunen familia-argazkia.

## Zinema Eraikitzen 34 sariak

### Zinema Eraikitzen 34 industria saria

*Los tiburones / The Sharks*,
Lucía Garibaldi (Uruguai-Argentina)

### Film Factory saria

*Los tiburones / The Sharks*,
Lucía Garibaldi (Uruguai-Argentina)

## Glocal in Progress 2 sariak

### Glocal in Progress industria saria

*Nematoma / Invisible*,
Ignas Jonynas (Lituania-Letonia-Ukrania)

### Glocal in Progress saria

*Nematoma / Invisible*,
Ignas Jonynas (Lituania-Letonia-Ukrania)

## Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroko sariak

### Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio foroko proiektu onenari saria

*Hermano Peligro / Brother Danger*,
Pablo Fendrik-ena eta Rei Cine-k (Argentina-Danimarka)

### EFADs-CACIren Europa-Latinoamerika koprodukzio saria

*La Llorona*,
Jayro Bustamante-rena eta La Casa de Producción-ek ekoitzia (Guatemala)

### Koprodukzioaren Garapenaren Eurimages saria

*The Jungle*,
Matthias Huser-rena eta 8 Horses-ek ekoitzia (Suitza)

### Arte International Prize

*Libertad*,
Clara Roquet-ena eta Avalon – Lastor Media-k ekoitzia (Espainia-Danimarka)

## Ikusmira Berriak 2 sariak

### REC Grabaketa Estudioa Postprodukzioa saria

*El agua / Water*,
Elena López Rierarena eta Alina Film-ek ekoitzia (Suitza)

## Nest Film Students 17 sariak

### Panavision saria

*El verano del león eléctrico*,
Diego Céspedes (Carrera de cine y televisión - Universidad de Chile, Txile)

**Aipamen nominal berezia**

*Onde o verão vai (Episódios da juventude) / Where the summer goes (Chapters on Youth)*,
David Pinheiro Vicente (Escola Superior de Teatro e Cinema, Portugal)

### Orona saria

*The Girl with Two Heads*,
Betzabé García (National Film and Television School, Erresuma Batua)

# Beste sari batzuk

## RTVE-Beste Begirada saria

*The Third Wife*,
Ash Mayfair (Vietnam)

## Premio Cooperación Española

*Los silencios*,
Beatriz Seigner (Brasil-Frantzia-Kolonbia)



Claire Denis zuzendaria, *High Life* filmagatik eman zioten Fipresci sariarekin.

# Sari paraleloak

## FIPRESCI saria

*High Life*,
Claire Denis (Frantzia-Alemania-Erresuma Batua-Polonia-AEB)

## FEDEORA saria

*Viaje al cuarto de una madre / Journey to a Mother's Room*,
Celia Rico Clavellino (Espainia-Frantzia)

## FEROZ Zinemaldia 2018 saria

*Quién te cantará*,
Carlos Vermut (Espainia-Frantzia)

## Euskal gidoi onenari saria

Raúl de la Fuente, Amaia Remírez,
*Un día más con vida / Another Day of Life*
(Espainia-Polonia-Belgika-Alemania)

## Greenpeace - Lurra saria

*Dantza*, Telmo Esnal (Espainia)

## Premio Signis saria

*Entre dos aguas / Between Two Waters*,
Isaki Lacuesta (Espainia)

**Aipamen berezia**
*Alpha, the Right to Kill*, Brillante Mendoza (Filipinak)

## Gipuzkoako Odol-Emaileen Elkartearen Elkartasun saria

*Bao bei er / Baby*, Lui Jie (Txina)

## Sebastiane 2018 saria

*Girl*, Lukas Dhont (Belgika-Herbehereak)




66. edizioko saridunen familia-argazkia, Kursaaleko agertokian.

## Ohorezko sariak

# Judi Dench

Antzezlea, Donostia saridun



«15 urte nituenean, Donostia bisitatu nuen nire gurasoekin. Orduan, ez nuen segundu batez ere pentsatu aktore izango nintzenik, eta are gutxiago hementxe bertan sari itzel hau jasoko nuenik. Etxera itzultzen naizenean, harro-harro erakutsiko diet saria. Mundu osoarekin hitz egingo dut gau honetaz».

## Ohorezko sariak

# Danny DeVito

Antzezlea, Donostia sariduna



«Zinema-aretoetan eman nituen nire haurtzaroko asteburuak; nire aktore gogokoenak ikusten nituen, eta pentsatzen nuen zoragarria izango litzatekeela Jerry Lewis, Marx anaiak edo Humphrey Bogart bezalakoa izatea, baina ez nuen inoiz pentsatu nik ere hau egin ahalko nuenik».

## Ohorezko sariak

# Hirokazu Koreeda

Zinegilea, Donostia sariduna



«Hasieran, film berri bat egiten nuen bakoitzean deitzen zidaten, eta, orain, uste dut ordena alderantzizkoa dela; Donostiara etortzeko egiten ditut filmak. Poz-pozik nago, eta nire lantaldea ere bai; behin etortzen badira, itzuli nahi dute».

## Ohorezko sariak

# Ramón Agirre

Antzezlea, Zinemira sariduna



«Ez dakit nola sentitu zen Danny DeVito, baina ni munduko aktorerik handiena sentitzen naiz».

SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

# Industria

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Europa
Creativa
MEDIA

# Industria

## Industria saila

**ZINEMALDIKO INDUSTRIA SAILAK** industriako profesional guztien eskura jarri ditu baliabide eta jarduerak, Donostiako egonaldia ahalik eta emankorrena eta pozgarriena gerta dakien. Gainera, euskarria eman die Zinemaldian hautatutako filmen taldeei: ekoizle, banatzaile eta salmenta-agenteei.

The Industry Club Kursaalen dago, Zinemaldiaren egoitzan, alegia, eta akreditatuek beren lana ahalik eta baldintzarik egokienetan egin ahal izateko instalazioak ditu. Honako jarduera eta zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen die **industriako akreditazioak**:

Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa; Zinema Eraikitzen; Glocal in Progress; Dokumentalen Lau Haizetara Koprodukzio Foroa; aurkezpenak, mahai-inguruak eta beste jarduera batzuk; eta hainbat zerbitzu, hala nola bilera profesionalak egiteko guneak, profesionalen online eremurako sarbidea (bertaratutako industria-kideak eta hautatutako filmen harremanetarako datuak) eta baterako lan-eremu bat, wifiarekin eta ordenagailuekin.

2018ko Zinemaldian, 4.144 profesional akreditatu ziren, eta horietatik **1.698 industriako akreditatuak ziren**, 63 herrialdetako 1.163 enpresatatik etorritakoak. Horrek esan nahi du 2017an baino % 4,7 gehiago izan zirela, eta kopuru horrek % 72,5 baino gehiagoko igoera jarraitua izan duela 2010arekin alderatuta.

**The Industry Club-ek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila-ren eta Creative Europe – MEDIA Programme of the European Commission-en sostengua du.**

**1.698**
akreditatu

**1.163**
enpresa
**63** herrialdeetan banatuta

**1.402**
Europako profesional
**(%82,5)**

**190**
Latinoamerikakoak
**(%11,1)**

**99**
beste herrialdetakoak
**(%5,8)**

**903** Espainiakoak
**183** Euskadikoak

# Industria

## 2018ko Berrikuntzak

Edizio honetan, hainbat berritasun aurkeztu zituen Industria Sailak, profesionalen arteko lankidetza errazteko eta gaur egungo zein etorkizuneko ikus-entzunezkoen gaiei heltzeko.

### Zinemaldia eta IKTak

Zinemaldiak, Tecnaliak, Petronorrek eta Tabakalerak bat egin dute industria-ekitaldi bat abian jartzeko. Urtero egingo da ekitaldia, eta zinemaren eta IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) berrikuntzaren arteko elkarketa sustatu nahi du. Juan Antonio Bayona zinema-zuzendariaren inaugurazio-hitzaldiak eman zion hasiera ***Zinemaldia & Technology*** jardunaldiari. Zenbait aurkezpen eta erakustaldi egin ziren, eta puntako teknologia hauen inguruko networking gune bat izan zuen: blockchain, errealitate birtuala eta errealitate mistoa, neuromarketinga eta hizkuntzaren teknologiak. Jardunaldia osatzeko, erakunde publikoetako eta enpresa pribatuetako zenbait ordezkari jardun ziren, bi mahai-ingurutan, eta gai hauetaz eztabaidatu zuten: alor publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana eta teknologiak zinemaren sektoreari dakarzkion aukera berriak.

### Ikus-entzunezko formatu berriak

Donostia Zinemaldiak, azken edizioetan, telesailak sartu ditu bere programazioaren barruan. Industria Sailak ere fenomeno hori landu nahi izan du, ***Serie-narrazioa: sorkuntzari eta industriari buruzko atal bat*** izeneko bi mahai-inguruen bitartez. Bertan, serie-narrazioek, sormenari eta produkzioari dagokienez, daukaten gero eta eginkizun garrantzitsuagoaz jardun zen; bereziki, Espainian, bertan ekoitzitako obrak nazioartean saldu baitira, eta erreferentzia bilakatu da mundu gaztelaniadunean.

### European Film Forum

Donostia Zinemaldiak eta Creative Europe MEDIAk jardunaldi bat antolatu zuten, zinema sustatzeko nazioarteko funtsei buruzkoa; batez ere, Europako eta Latinoamerikako funtsek koprodukzioak sustatzeko eta merkatu berrietara sartzeko duten eginkizunaz jarduteko. Jardunaldia European Film Forum plataformaren barruan sartzen da. Europako Batzordeak 2015. urtean abiarazi zuen plataforma horrek arduradun politikoen eta ikus-entzunezko sektorearen arteko elkarrizketa egituratua ahalbidetzen du.

### Focus on the Baltics

Focus on industria-ekimena 2014. urtean abiarazi zen, Focus on Canada jarduerarekin. Telefilm Canadarekin elkarlanean, Kanadako profesional-talde bat gonbidatu zen Donostiara, Zinemaldia bertatik bertara ezagutu, harreman profesionalen sarea zabaldu eta Industriako jardueretan parte hartzeko.

2018ko Focus jarduera Baltikoko herrialdeetan oinarritu zen. Estonian Film Institute, National Film Centre of Latvia eta Lithuanian Film Centre erakundeen elkarlanari esker, Zinemaldira etorri ziren proiektuak aribidean zituzten Estoniako, Letoniako eta Lituaniako hamabost ekoizle, Europako nahiz Latinoamerikako beste eskualde batzuekin batera ekoizteko aukerak areagotzeko.

**«Proyecta», Ventana Sur azokarekin elkarlanean eginiko proiektu berria**

2018an, Donostia Zinemaldiaren eta Ventana Sur azokaren arteko lankidetza areagotu da: PROYECTA abiarazi dute, Latinoamerikarekin eta Latinoamerikan koprodukzioak sustatzeko. Canneseko zinema-jaialdiko Marché du Filmek eta Zinemaren eta Ikus-entzunezko Arteen Argentinako Erakundeak (INCAA) antolatzen dute Ventana Sur, eta Latinoamerikako zinema-azokarik garrantzitsuena da.

### Zinemaldiaren bideoteka

Zinemaldiaren bideoteka-zerbitzua, Zinemaldia hastean denean ireki eta bukatzen denetik hilabetera ixten dena, online baino ezin da erabili orain, eta edozein ordenagailu eramangarritik dago ikusgai. Gainera, Cinandok doako aplikazio bat jarri du iPad gailuetako erabiltzaileen eskura.

# Industria

## Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroa

*Irailak 23, 24, 25 eta 26. San Telmo Museoa*

Koprodukzio Foroa garapen bidean dauden proiektuak, Europakoak zein Latinoamerikakoak, aurkezteko plataforma bat da. Hautatutako 16 proiektuen arduradunek pitching saio batean aurkeztu zizkieten industriako kideei eta haien proiektuetan interesa zuten profesionalekiko hitzorduen agenda pertsonalizatu bat izan zuten.

San Telmo Museoko klaustroa networking-erako gune gisa prestatu zen, industriako akreditatuek bilerak hitzartu ahal izateko. Gune horretan, gosariak, bazkariak eta happy hour direlakoak eskaini zizkieten bertaratutakoei.

Era berean, ekitaldien aretoan mahai-inguruak eta aurkezpenak egin ziren. Horietan, profesionalek esperientziak trukatu zituzten, baita intereseko auziak jorratu ere, hala nola ikus-entzunezkoen azken joerak, koprodukzioak, banaketa eta negozio-eredu berriak.

**956**
bertaratu

**808**
bertaratu *networking* eremuan

**663**
bertaratu mahai-inguruetara

**223**
proiektu jasota

**211**
bertaratu *pitching* saioetara

**667**
*one to one* bilera

# Industria

## Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroa

**223** proiektu
**29** herrialdetakoak

### Hautaketa

Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroan, **29 herrialdetako 223 proiektuk** eman zuten izena, gehienak Latinoamerikakoak. Zinemaldiko Hautaketa Batzordeak hamabost proiektu aukeratu zituen, nazioarteko hiru adituk eginiko txostenak kontuan hartuta: Manuel Pérez Estremerak, Javier Martínek eta Andrea Stavenhagenek.

Horrez gain, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko proiektu zinematografikoak garatzeko tailerreko proiektu batek Foroan parte hartu zuen (saria irabazteko aukerarik gabe), Zinemaldiak Ibermedia programarekin sinatutako hitzarmenari esker.

Foroko hiru egunetan, hautatutako proiektuek –jarraian zerrendatuko ditugu– agenda bete-betea izan zuten:

- *Ane & Peio, maitasun istorio bat piper artean / Ane & Peio, a paprika love story (Ane & Peio, una historia de amor entre pimientos)* - Lara Izagirre Garizurieta GARIZA FILMS (Espainia – Frantzia)
- *Democracia* -Tata Amaral | Tangerina Entretenimento. (Brasil)
- *Diário de viagem / Butterfly Diaries* - Paula Un Mi Kim | Dezenove Som E Imagens (Brasil)
- *Dúo* - Meritxell Colell | Polar Star Films (Espainia – Argentina – Frantzia – Txile)
- *El velo / The Veil* - Stefano Pasetto | Eklektik Productions (Belgika – Argentina – Italia)
- *Hermano peligro* - Pablo Fendrik | Rei Cine (Argentina – Danimarka)
- *La felicidad* - Pepa San Martín | Manufactura de Películas (Txile)
- *La llorona* - Jayro Bustamante | La Casa de Producción (Guatemala)
- *La noche más larga* - Moroco Alfredo Colman | Más Allá Productora (Argentina)
- *Las mil y una* - Clarisa Navas | Varsovia Films (Argentina)
- *Libertad* - Clara Roquet | Producción: Avalon P.C. - Lastor Media (Espainia – Danimarka)
- *Los extraños de la montaña helada* - Albertina Carri | El Borde (Argentina)
- *Marea* - Emiliano Torres | Gaman Cine (Argentina) *Querida Vera* José Luis Torres Leiva | Globo Rojo Producciones (Txile)
- *The Jungle* - Matthias Huser | 8Horses (Suitza)
- *Un nuevo amanecer* - Priscila Padilla Farfan | Doce Luna Producciones (Kolonbia)

**Ibermedia proiektua (Ez zuen saririk eskuratzeko parte hartu)**

- *La lluvia* - Lony Welter | Romeo: Laboratorio + Películas (Kolonbia – Mexiko)

# Industria

## Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroa

### Sariak

Foroan nazioarteko erakundeen sari garrantzitsuak ematen dira. Honako proiektu hauek eskuratu zuten saria, 2018. urtean:

#### Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroko proiektu onenari saria

10.000 euro gordineko saria ekoizle gehiengodunarentzat.

- *Hermano peligro*, Pablo Fendrik-ek zuzendua
  Rei Cine (Argentina - Danimarka)

#### EFADs-CACIren Europa-Latinoamerika Koprodukzio saria

20.000 euroko saria ekoizle gehiengodunarentzat.

- *La llorona*, Jayro Bustamante-k zuzendua
  La Casa de Producción (Guatemala)

#### Koprodukzioaren garapenaren Eurimages saria

Eurimageseko kide den Europako herrialde bateko ekoizle gehiengodunarentzat 20.000 euroko saria, programa horretako beste herrialde batekin koprodukzioan jarduteko asmoarekin.

- *The Jungle*, Matthias Huser-ek zuzendua
  8Horses (Suitza)

#### ARTE Kino International Prize

6.000 euroko saria ekoizle gehiengodunarentzat.

- *Libertad*, Clara Roquet-ek zuzendua
  Avalon P.C. - Lastor Media (Espania – Danimarka)

Donostia Zinemaldiak Forjando Alianzas lankidetza-hitzarmena dauka sinatuta Ventana Sur-ekin, Latinoamerikako zinema merkatu garrantzitsuenarekin, alegia. Ventana Sur Canneseko Marché du Film jaialdiko Producers Network sareak eta INCAA, Argentinako Zinemaren eta ikus-entzunezko Erakundeak, antolatzen dute. Hitzarmenaren esparruan, lau ekoizle sailkatu dira -haien enpresek Europan dute egoitza, eta Foroan parte hartu dute-, beren proiektuak Ventana Sur egitasmoan izandako industriako profesionalei aurkezteko:

1. Itxaso Espinal
   GARIZA FILMS (Espainia). Proiektua: *Ane & Peio, maitasun istorio bat piper artean*
2. Belén Sánchez
   POLAR STAR FILMS (Espainia). Proiektua: *Dúo*
3. Samuel Tilman
   EKLEKTIK PRODUCTIONS (Belgika). Proiektua: *El velo*
4. María Zamora
   AVALON PC (Espainia). Proiektua: Libertad
5. Tolga Dilsiz
   8 HORSES (Suitza). Proiektua: The Jungle

### Jardunaldiak, mahai-inguruak eta aurkezpenak

Foroan bertan, paraleloan, zenbait ekitaldi antolatu ziren; alde batetik, parte-hartzaileen artean topaketa informalak sustatzeko, eta, bestetik, ikus-entzunezko industriaren alderdi interesgarrien inguruko esperientziak eta ezagutza trukatzeko.

- Etorkizunera atzera: Nola eman bizitza eta merkatu hobea hiru urtetik gorako filmei?
- Prestakuntzatik lanbidera, joan-etorriko bidea
- European Film Forum: nazioarteko funtsak, koprodukzioak eta merkatuetara Sarbidea
- Zinemaldia & Technology 2018 – Film Industry & Blockchain
- Latinoamerikarekiko koprodukzioaren eta banaketaren egoera berria
- Glocal: Europako zinemagintzaren aniztasuna merkatu-balio gisa
- Latinoamerika: Emakumeak eta zinema. Emakumearen gorabideko rola Latinoamerikako zineman

# Industria

## Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroa

### Focus on the Baltics

Foroaren barruan, Industria Sailak Focus on antolatzen du. Horren bidez, herrialde, eskualde edo lurralde batetik datorren profesional-talde bat Donostia Zinemaldira dator, harreman profesionalen sarea zabaldu eta Industriako jardueretan parte hartzeko.

Aurten, Estonian Film Institute, National Film Centre of Latvia eta Lithuanian Film Centre erakundeen elkarlanari esker, Zinemaldira etorri dira proiektuak aribidean zituzten Estonia, Letonia eta Lituaniako hamabost ekoizle, Europako nahiz Latinoamerikako beste eskualde batzuekin batera ekoizteko aukerak areagotzeko.

### Euskal proiektuak nazioartekotzeko aholkularitza.

Europa Creativa Desk MEDIA Euskadik eta Zineuskadik, Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean, nazioartekotzeko bokazioa duten zinema-proiektuetarako aholkularitza-saioak antolatu dituzte. Ekimena film luzeko proiektuak garapen- edota grabazio-fasean dituzten ekoizleei zuzenduta dago, eta nazioartekotzeko eta Zinemaldiaren 66. edizioan bazkide berriak bilatzeko abiapuntu sendoa eskaintzen die ekoizleei.

Aurten, Katrin Porsek eman zuen aholkularitza-saioa, Europaren eta Latinoamerikaren arteko koprodukzioetan esperientzia luzea duen ekoizle danimarkarrak, hain zuzen. Aurrez aurreko aholkularitza-saioak ekainaren 27an eta 28an egin ziren, eta Donostia Zinemaldian zehar gauzatu ziren. Porsen zeregina zera zen, hautatutako profesionalei proiektuak nazioartekotzen eta bazkideak eta finantziazioa bilatzen laguntzea.

### Babesleak eta kolaboratzaileak

Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroa egin ahal izateko, ezinbestekoak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren babesa eta Creative Europe MEDIAren laguntza. Gainera, beste organismo eta elkarte batzuen laguntza ere egon da, hala nola: EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkarteak), CACI (Iberoamerikako Ikus-entzunezko eta Zinematografiako Agintarien Konferentzia), Eurimages, Producers Network - Marché du Film, Festival de Cannes, INCAA (Argentinako Zinemaren eta Ikus entzunezko Erakundea), ARTE France Cinéma, EPE-APV (Euskal Produktoreen Elkartea), Euskal Institutua Etxepare, Europa Creativa Desk Media Euskadi Europa Distribution, IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea), Programa Ibermedia, LatAm Cinema, eta Zineuskadi.

# Industria

## Ikusmira berriak

Ikusmira Berriak Tabakalera-Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, Donostia Zinemaldiak eta sortu berria den Elías Querejeta Zine eskolak antolatutako programak ikus-entzunezko proiektuen garapena sustatzen du. Berrikuntzaren eta esperimentazioaren aldeko apustua egiten du, nahiz zinema lengoaian, nahiz ekoizpen-moduetan. Programaren helburu nagusia ikus-entzunezko sormena bultzatzea da, eta bi ardatz ditu: prestakuntza eta ekoizpena.

Ikusmira Berriak programak, sari moduan, sei asteko egoitza eskaintzen du sormena garatzeko, hala nola laguntza bat ekoizpena hasteko eta laguntza-plan bat postprodukziorako.

Programak aurten laugarren urtea bete du, eta amaitzeko, proiektuek parte-hartze aktiboa izan zuten Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroan, bai irailaren 23ko pitching saioan beraien proiektuetan interesa zuten profesionalekin one-to-one bilerak eginez.

### Hautaketa

- *918 Gau,* Arantza Santesteban-ek zuzendua | Hiruki (Espainia)
- *Chupacabra,* Grigory Kolomytsev-ek zuzendua | VGIK-Debut (Errusia)
- *Dormen os peixes de olhos abertos?,* Nele Wohlatz-ek zuzendua | Ponte Produçoes (Brasil)
- *El agua,* Elena López Riera-k zuzendua | Alina Films (Suitza)
- *El oasis,* Manuel Abramovich-ek zuzendua| Tonalá Lab (Mexiko)

### Saria

**REC Grabaketa Estudioa**

Sari moduan, film luze bat egiteko postprodukzio-zerbitzuak eskaintzen ditu, 35.000 euroko balioarekin.

*El agua,* Elena López Riera-k zuzendua | Alina Films (Suitza)

# Industria

## Zinema Eraikitzen 34

*Irailak 24, 25 eta 26. Príncipe zinema-aretoak*

Ekinbide hau Cinélatino, Rencontres de Toulouse Frantziako jaialdiarekin lankidetzan antolatu da, eta urtean bi deialdi ditu, martxoan bata (Tolosa) eta irailean bestea (Donostia). Postprodukzio fasean dauden Latinoamerikako film luzeen ekoizpena errazteko helburua dauka, baldin eta finantzatzeko eta banatzeko zailtasunak badituzte.

2018an, 20 herrialdetako 181 filmek eman zuten izena. Horietatik sei lan hautatu ziren, eta profesionalei aurkeztu zitzaizkien bukatzen eta nazioartean banatzen laguntzeko.

**181** film izena eman dutenak

**20** herrialde

**6** film aukeratuak

**30** herrialdetako
**230** parte-hartzaile

### Hautaketa

- *El príncipe,* Sebastián Muñoz-ek zuzendua | El Otro Film (Txile)
- *Los fuertes*, Omar Zúñiga-k zuzendua| Cinestación Producciones Limitada (Txile)
- *Los tiburones*, Lucía Garibaldi-k zuzendua | Montelona Cines (Uruguai)
- *Mateína*, Joaquín Peñagaricano-k eta Pablo Abdala-k zuzendua| Jengibre Producciones (Uruguai)
- *Ni héroe ni traidor*, Nicolás Savignone-k zuzendua | Ñapango (Argentina)
- *Sirena*, Carlos Piñeiro-k zuzendua | Socavón Cine (Bolivia)

### Sariak

#### Industriaren Zinema Eraikitzen 34 saria:

Ad Hoc Studios, Deluxe Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim Producciones, No Problem Sonido eta Wanda Vision enpresak film baten postprodukzioaz arduratuko dira –ingelesez azpititulatutako DCP (Digital Cinema Package) kopia egin arte–, eta, horretaz gain, filma Espainian banatuko dute.

- *Los tiburones*, Lucía Garibaldi Montelona Cines (Uruguai)

#### Film Factory Saria

- *Los tiburones*, Lucía Garibaldi Montelona Cines (Uruguai)

### Kolaboratzaileak

Zinema Eraikitzen sailak honako enpresa eta erakunde hauen babesa du: Ad Hoc Studios, Conferencia de Autoridades Audiovisuales y Cinematográficas de Iberoamérica (CACI), Deluxe Spain, Dolby Iberia, Film Factory, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones, No problem Sonido, Programa Ibermedia, Wanda Visión. Eta beste hauen laguntza: Association Rencontres Cinémas d'Amérique Latine de Toulouse (ARCALT), Les Activités Sociales de l'Energie (CCAS), Bureau des Tournages Toulouse, Centre National du Cinéma et de l'Image Animée (CNC), CINÉ +, Commune Image, Confédération Internationale des Cinémas d'Art et Essai (CICAE), Conseil Général de la Haute Garonne, Eaux Vives, École Nationale Supérieure d'Audiovisuel (ENSAV), Europa Distribution;  Firefly, Gaumont Wilson, La Cinéfondation, Le-Lokal, Mactari, Mairie de Toulouse, Producers Network-Marché du Film, Festival de Cannes, Région Occitanie Pyrénées - Méditerranée, Signis eta Titrafilm.

# Industria

## Glocal In Progress

*Irailak 24, 25 eta 26. Príncipe zinema-aretoak*

2017an sortutako industria-jarduera honen helburua da Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan filmatuta dauden produkzioak ezagutzera ematea –hau da, alemanez, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, italieraz edo errusieraz filmatuta ez daudenak–, kolaborazioak erraztea, koprodukzioak sustatzea eta film horiek hedatzen laguntzea. Glocal in Progress Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako Glocal Cinema ekimenaren fruitu da.

Donostia Zinemaldiko hautaketa-batzordeak postprodukzio-fasean zeuden hiru film luze aukeratu zituen, eta horiek amaitzen eta nazioartean banatzen lagun zezaketen profesionalen talde bati aurkeztu zitzaizkion (ekoizleak, banatzaileak, salmenta-agenteak eta programatzaileak, besteak beste).

**23** film izena eman dutenak

**11** herrialde

**3** film aukeratuak

**22** herrialdetako
**85** parte-hartzaile

### Hautaketa

- *A Simple Man*, Tassos Gerakinis-ek zuzendua | Bad Crowd (Grezia-Frantzia)
- *Kraliçe Lear / Queen Lear*, Pelin Esmer-ek zuzendua | Sinefilm (Turkia)
- *Nematoma / Invisible*, Ignas Jonynas-ek zuzendua | Magic Films (Lituania-Letonia-Ukrania)

### Sariak

#### Glocal in Progress Industriaren Saria

Ad Hoc Studios, BTeam Pictures, Deluxe Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim Producciones eta No Problem Sonido enpresek ematen dute saria, eta film bati postprodukzio-zerbitzuak eskaintzean datza saria –ingelesez eta gaztelaniaz azpititulaturiko DCP kopia egin arte– eta, akaso, filma banatzea Espainian. Sari horren balioa 150.000 euro ingurukoa da.

- *Nematoma / Invisible*, Ignas Jonynas zuzendariarena eta Magic Filmsk ekoitzia (Lituania-Letonia-Ukraina)

#### Glocal in Progress Saria

10.000 euroko saria da, eta Donostia Zinemaldiak Industria saria jasotzen duen filmari ematen dio.

- *Nematoma / Invisible* de Ignas Jonynas (Lituania-Letonia-Ucrania)

# Industria

## Lau Haizetara Dokumentalen XIV. Koprodukzio Foroa

*Irailak 27. Kursaal Gunea*

IBAIAk (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak) antolatzen du foroa, Industria sailaren lankidetzarekin, ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen arteko topagune bat eskaintzeko helburu nagusiarekin, Europako eskualdeetako ekoizleen artean koprodukzio-harremanak sustatzeko. Jardunaldi horretan, ekoizleek beren proiektuak aurkeztu zituzten nazioarteko Commissioning Editors nabarmenen multzo baten eta sektoreko hainbat profesionalen aurrean, eta banakako bilera-agenda bat izan zuten.

### Hautaketa

Hautatutako proiektuen artean, hauek izan ziren euskal ekoizpenekoak:

- *Arzak, Since* 1897 - Asier Altuna | Bainet Zinema (Espainia)
- *La flota de indias* de Antonio Pérez
  - Antonio Pérez | Inicia Films – Trueday Films (Espainia)
- *La gran boda de Nagorno Karabakh* - Guido Belforte Balián y Santi Winer | Salon Indien Films – Linda Films – HY Pictures – 39 Films (Espainia – Italia – Armenia – Argentina)
- *Lobster Soup* de Rafael Molés
  - Rafael Molés – Pepe Andreu | Suica Films – REC Grabaketa Estudioa – Axfilms (Espainia)
- *Mal de caña* de Juan Zapata
  - Juan Zapata | Batabat (Espainia – Dominikar Errepublika)
- *Matrioskas, las niñas de la guerra* de Helena Bengoetxea Haruru Filmak - Sincro Producciones (Espainia - Kuba)
- *Newtopia* de Audun Amundsen
  - Audun Amundsen | Upnorth Film (Norvegia – Indonesia)
- *Niño de Elche* de Marc Sempere
  - Marc Sempere  eta Leire Apellaniz | Señor y Señora, S.L. (Espainia)
- *The Other Side of the River* de Tamara Taro
  - Tamara Taro eta Jakob Krese | Doppelplusultra Film und TV Produktion (Alemania)
- *Persia on Air* - Javier Tolentino | Quatre Films (Espainia)
- *The Democratic Hypothesis* - Thomas Lacoste | Sister Productions (Frantzia)
- *The Mistery of the Pink Flamingos* - Javier Polo | Japonica Films (Espainia)
- *There Was and There Wasn't* - Andrea Capranico | Ladoc Films (Kanada – Italia)
- *We Die* - Rebeca Sánchez | Kepler Mission Films – Perro Negro Cine – White Leaf Producciones (Espainia – Mexiko)

Jarduera horretan pitching saioak prestatzen ikasteko tailer bat ere izan zen. Tailerra Foroa egin aurreko bi egunetan hautaturiko proiektuen ordezkariei zegoen zuzenduta. Lau Haizetara XIV. Foroak **106 parte-hartzaile** izan zituen. Pitching saioak, banakako bilera-agenda eta hitzaldi bat izan ziren.

### Sariak

#### IBAIA saria

IBAIA sariak 3.000 euro ematen dizkio irabazi duen proiektuaren ekoizleari.

- Rafael Molésen *Lobster Soup* | Suica Films – REC Grabaketa Estudioa – Axfilms (Espainia)

#### Treeline saria

Sariak filma banatzeko eta jaialdietarako aholkularitzan datza.

- Rafael Molésen *Lobster Soup* | Suica Films – REC Grabaketa Estudioa – Axfilms (Espainia)

# Industria

## Zinemaldia & Technology

Donostia Zinemaldiak, Tecnaliak eta Petronorrek zinemaren eta IKTetako berrikuntzaren arteko topagune bat eraikitzea xede duen jardunaldi berri bat jarri dute martxan. Juan Antonio Bayona zinema-zuzendariak egin zuen inaugurazio-ekitaldiko hitzaldia. Zenbait aurkezpen eta erakustaldi egin ziren, eta puntako teknologia hauen inguruan harreman-sareak lantzeko gune bat ere egon zen: bloke-kateak, errealitate birtuala eta errealitate mistoa; neuromarketina eta hizkuntzaren teknologia berriak. Jardunaldiaren osagarri, erakunde publikoetako eta enpresa pribatuetako zenbait ordezkari jardun ziren bi ekitalditan, gai hauetaz eztabaidatzen: alor publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana eta teknologiak zinemaren sektoreari dakarzkion aukera berriak.

## Beste jarduera batzuk

*Irailaren 22tik 30era. Kursaal Gunea eta Tabakalera*

Industria Saila Zinemaldiaren **Agenda Profesionalean** zehazten diren aurkezpen, mahai-inguru eta profesionalen arteko bilera ugari antolatu zituen.

Serie-narrazioa: sorkuntzari eta industriari buruzko atal bat Europa Creativa Desk MEDIA Euskadiren lankidetzarekin.

- *Serie-narrazioa: sorkuntzari eta industriari buruzko atal bat.* Europa Creativa DESK Media Euskadiren lankidetzarekin
- Lantaldeen bilerak, gai hauen ingurukoak: *Merkatu digital bakarra eta Copyrighta; zinema-hezkuntza eta Think Tank* | EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea)
- Tailerra: *Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Zuzentarauaren (AVMSD) aldaketaren aplikazioa, VoD zerbitzuetako edukien nagusitasuna harturik ardatz* | EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea)
- Topaketa Lucia Recalderekin, Creative Europe MEDIA Unitateko burua – *MEDIA 2020-2027 Programaren berrikuntzak*
- Osoko bilera | EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea)
- Europa Distribution tailerra
- Iberoamerikako LGTBIQ+ zinema-jaialdien topaketa Sebastiane sariak
- Lantaldeen bilerak | Cine Regio (Eskualdeetako zinematografia-funtsen Europako sarea)
- Aurkezpena: *Espainiaren eta Argentinaren arteko koprodukziorako akordio berria* | ICAA (Zinemagintza eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua) eta INCAA (Zinema eta Ikus-entzunezko Arteen Institutu Nazionala)
- Bilera: EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea) eta CACI (Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentzia)
- Aurkezpena: *Ezagutu zure proiekturako foroak eta merkatuak*. Animazioa, fikzioa eta dokumentala | Canary Islands Film
- Kontsulta Kontseilua CACI (Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentzia).
- Klase magistrala eta koktela *Nola argiztatu, grabatu eta postproduzitu HDRrako*, Pablo Rosso argazki-zuzendariak eta Arri eta FilmLighteko adituek eskainia | ARRI Academy HDR.
- Hitzarmena sinatzea - *EIKEN Euskadiko Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Klusterraren eta IAAVIM Misioneseko (Argentina) Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren arteko elkarlana.*
- Industria Sariak aurkezteko prentsaurrekoa, Kursaal zentroan.

# Industria

## Beste jarduera batzuk

### Happy Hour-rak, kopak eta koktelak

Ekitaldi hauen helburua da zinema-industriari eta prentsari topagune bat eskaintzea. Hainbat erakundek eskaini dituzte halako ekitaldiak, zinematografiak sustatzeko eta harreman profesionalak bultzatzeko, betiere giro atseginean.

- **Happy Hour Extremadura**
  *Zinema-karabana: zinemako toki, pertsonaia eta istorioz jositako bidaia.*
- **Happy Hour**
  Focus on the Baltic
- **Happy Hour**
  CinemaChile
- **Koktela: Andalucía Film Commissionen 20. urteurrena**
  *Zinearen jomuga.*
- **Zineuskadik eskainitako koktelai**
  *Euskal zinema ospatzen*
- **Istituto Italiano di Cultura di Madrid institutuak eskainitako kopa**
  *Gosegarria, Italiako zinemarekin.*
- **Industriaren kopa.**
- **EIKENek (Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra) eta Argentinako Ikus-entzunezko Industriak eskainitako koktela.**
- **Lau Haizetara dokumentalen XIV. Koprodukzio Foroaren amaiera -** IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea).

# Industria

## Nazioarteko erakundeen eta profesionalen sareekiko lankidetza

### Ventana Sur (Canneseko zinema-jaialdiko Marché du Film eta Zinemagintza eta Ikus-Entzunezko Arteen Institutua)

2018an, Donostia Zinemaldiaren eta Ventana Sur azokaren arteko lankidetza areagotu da: PROYECTA abiarazi dute, Latinoamerikarekin eta Latinoamerikan koprodukzioak sustatzeko. Canneseko zinema-jaialdiko Marché du Filmek eta Zinemaren eta Ikus-entzunezko Arteen Argentinako Erakundeak (INCAA) antolatzen dute Ventana Sur, eta Latinoamerikako zinema-azokarik garrantzitsuena da.

Ekimen berri honetan, Europako bost ekoizlek (Donostiako Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan hautatuko dira) eta garapen bidean dauden Latinoamerikako sei proiektu berrik parte hartuko dute (Donostia Zinemaldiak eta Ventana Sur azokak batera hautatuko dituzte). Gainera, PROYECTA ekimenak CineMundik hautatutako proiektu bat eta EAVE Puentes-Europe/Latin America Co-production Workshop tailerrean parte hartu duten hiru proiektu gonbidatuko ditu.

Jarduera berrian, lehenik, industriako profesionalei aurkeztuko diete proiektua ekoizleek (pitching), eta, ondoren, proiektuen ordezkarien eta profesional parte-hartzaileen arteko  topaketa izango da.

### European Film Promotion

Lankidetza horren ildotik, Latinoamerikan interesa duten Producers On the Move programako Europako 7 ekoizle gonbidatu ziren, Europa-Latinoamerika VII. Koprodukzio Foroan parte har zezaten.

### Europa Distribution

Europa Distribution (Europako Banatzaile Independenteen Sarea) eta Donostia Zinemaldiaren arteko lankidetzaren esparruan, elkarte horretako hogei bat lagun izan ziren Donostian, tailerra egiteko.

Gainera, Europa Distribución sareak mahai-inguru bat bultzatu du Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroaren esparruan: *Etorkizunera atzera: nola eman bizitza eta merkatu hobea hiru urtetik gorako filmei?*

### Meet Them!

Industria sailak lankidetza-sare bat du nazioarteko zinemako esparruko beste organismo batzuekin Donostian profesionalen taldeak egon daitezen, Zinemaldia ezagutzeko, harreman sarea handitzeko eta Industriako jardueretan parte hartzeko. Jarraian, erakunde kolaboratzaileak eta ekoizle parte-hartzaileak zerrendatzen dira:

- **ALCA Nouvelle-Aquitaine** (Frantzia)
- **Cinemachile**
- **Cinema do Brasil**
- **Curso de desarrollo de proyectos cinematográficos iberoamericanos** (Espainia)
- **Europa Creativa Desk Media Euskadi** (Espainia)
- **European Film Promotion** (Alemania)
- **Instituto Italiano Di Cultura** (Espainia)
- **Ministerio de Cultura de Perú**
- **Proimágenes Colombia**
- **Telefilm Canada**

# Industria

## Bideoteka

Zinemaldiko Bideotekak Zinemaldiko sail guztietan hautatuko filmak streaming bidez ikusteko aukera jarriko du industriako profesional akreditatuen esku, betiere film horien ordezkariek inskribatu badituzte. Filmak Zinemaldia amaitu eta hilabete igaro arte ikusi ahalko dituzte (2018ko urriaren 29ra arte). Zinemaldiko Bideotekaren kudeatzailea CinandoVL da, Cannesko zinema-jaialdiko Marché du Film ekimenak industriako profesionalentzat sortutako plataforma.

Zinemaldiko Bideotekak, halaber, Espainiako eta Latinoamerikako filmen bilduma bat eskaintzen du.

Plataforma Zinemaldiaren lehen egunetik (irailak 21) urriaren 29ra arte egongo da erabilgarri; zinema-jaialdia amaitu eta hilabete geroagora arte, beraz. Denbora-tarte horretan, **2.696 ikusketa** izan ziren (2017an, berriz, 1.525).

# 66. edizioko 66 momentu



Ricardo Darín eta Mercedes Morán, *El día menos pensado* filma Kursaalen eman ostean (66. edizioko inaugurazio-ekitaldiko filma izan zen).



Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, Anoetako belodromoan.




Lily-Rose Depp aktorea, *L'homme fidèle* filmaren (Sail Ofiziala) argazki-saioan, Aquariumean.



Antonio de la Torre aktorea, musu ematen Rodrigo Sorogoyeni, *El Reino* filmeko (Sail Ofiziala) zuzendariari.




Jean-Claude Carrière gidoilaria, *L'homme fidèle* filmeko lantaldearen argazkian sartzen, alfonbra gorrian (ezkerretik eskuinera: Kiara Carrière aktorea, Louis Garrel aktore, zuzendari eta idazlea, eta Joseph Engel eta Laetitia Casta aktoreak).



José Girao Kultura ministroa, Esther García ekoizleari txalo egiten, Espainiako Zinematografia sariaren zeremonian.



Danny DeVito aktorea, Maria Cristina hotelera iristean.



*Smallfoot* filmaren argazki-saioa (Belodromoan), gaztelaniazko bikoiztaileekin –Ingrid García-Jonsson, Álvaro Morte eta El Chojin– eta DeVitorekin.



*Der Unschuldige / The Innocent* filmeko (Sail Ofiziala) lantaldea: Thomas Schüpbach eta Judith Hofmann aktoreak eta Simon Jaquemet zuzendaria.



Zinemaldiko zuzendari José Luis Rebordinos, CIMA elkarteko presidente Cristina Andreu eta Espainiako Gobernuko presidenteorde Carmen Calvo, parekotasunaren eta zinemagintzan emakumeak sartzearen aldeko gutuna sinatu ondoren.




Made in Spain saileko *Querido Fotogramas* dokumentalaren aurkezpena: Jesús Ulled (ekoizlea), Jaume Figueras eta Maruja Torres (partaideak) eta Sergio Oksman (zuzendari eta gidoilaria).




J.A. Bayona zinemagilea, Zinemaldia & Technology sailaren inaugurazio-ekitaldiko hitzaldian.




Brillante Mendoza zuzendaria, Carlo Valenzona fotografiatzen, *Alpha, the Right to Kill* filmaren (Sail Ofiziala, Epaimahaiaren Sari Berezia) ekoizlea.




Lily Franky eta Hirokazu Koreeda, *Shoplifters* filmeko (Donostia sariko emanaldia) protagonista eta zuzendaria.




Timothée Chalamet aktorea eta Felix Van Groeningen zuzendaria, Kursaaleko publikoaren txaloak jasotzen.



Ryan Gosling eta Claire Foy aktoreak, *First Man* filmaren aurkezpenean (Perlak).




Publikoaren eta komunikabideen ikusmina, *First Man* filmaren alfonbra gorrian, Viktoria Eugenia antzokian.




Gazte Epaimahairen lehen bilera; *Viaje al cuarto de una madre* filma (New Directors saila) saritu zuen.



Haurrentzako zinema-saioa, Belodromoan.




Nest Film Students topaketaren 17. edizioko zinemagile parte-hartzaileak (Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa).



Tiago Varela da Silva eta Vasco Varela da Silva, Valeria Sarmientok zuzendu duen *Le cahier noir* filmeko (Sail Ofiziala) protagonistak.



Paul Laverty eta Icíar Bollaín, Carlos Acosta hunkituarekin, Yuli filmaren (Sail Ofiziala, gidoi onenaren saria) emanaldiaren ondoren.



Telmo Esnal, Viktoria Eugenia antzokian, Juan Antonio Urbeltzekin, Koldobika Jauregirekin eta Marian Fernandezekin, *Dantza* filmaren (Sail Ofiziala, emanaldi bereziak) emanaldiaren ondoren.



*Tiempo después* filmeko (Sail Ofiziala, emanaldi bereziak) lantaldea, José Luis Cuerda zuzendariaren inguruan.



Markus Schleinzer, Martine Schambacher, Kenny Nzogang, Larisa Kerklez eta Lukas Miko, *Angelo* filmaren (Sail Ofiziala) emanaldiaren ondoren, Kursaalean.




Eva Llorach, *Quién te cantará* filmeko (Sail Ofiziala) protagonista, Aquariumeko photocallean.




Ciro Guerra eta Cristina Gallego, *Pájaros de verano* filmeko (Perlak) zuzendariak, Juan Zavalarekin hizketan, TCM topaketetan, *Oreina* filmeko (New Directors) protagonista Laulad Ahmed Saleh begira dutela.



Carlos Vermut zinemagilea, Kursaaleko publikoa agurtzen, Carme Elías eta Najwa Nimri aktoreen aurrean.



Quim Casas (Donostia Zinemaldia) eta Ana Cristina Iriarte (Filmoteca Española), Muriel Boxi buruzko atzera-begirakoaren argitalpena aurkezten.



José Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendaria, Juliette Binoche eta Marianne Slotekin hizketan, Naomi Kawasek zuzendutako Vision filmeko (Sail Ofiziala) aktorea eta ekoizlea hurrenez hurren.




Kim Jee-woon zuzendaria, Zinemaldiko liburua sinatzen, Illang (*Illang: Otso Brigada*, Sail Ofiziala) filmaren inguruko prentsaurrekoa izan baino lehen.




Peter Strickland, *In Fabric* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendaria, Nest Film Students topaketaren 17. edizioko ikasleekin hizketan.




Espainiako emakumezko argazkilaritza-zuzendarien kolektiboaren aurkezpena, Kursaaleko prentsa-klubean.



*Entre dos aguas* filmaren familia-argazkia (Sail Ofiziala, Urrezko Maskorra): protagonista, zuzendaria eta ekoizlea, bere alabekin.




RTVEren prentsaurrekoaren aurretik egindako argazki-saioa, telebista publikoko profesionalekin, zinemagileekin eta ekoizleekin.




Mia Goth, Claire Denis, Agata Buzek, Juliette Binoche eta Robert Pattinson, *High Life* filmeko (Sail Ofiziala, Fipresci saria) haurrari begira.



Zinemaldiko prentsaurrekoen aretoa, beteta, Claire Denisi eta *High Life* filmeko protagonistei entzuteko.



*Bao bei er / Baby* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendaria, Liu Jie, eta protagonistak, Yang Mi eta Guo Jingfei.



Culinary Zinema saileko lehen afaria, *Tegui: un asunto de familia* filmean inspiratuta.



Koldo Almandoz, *Oreina* filmaren (New Directors, Euskal Zinemaren Irizar saria) zuzendaria, filmeko lantaldearekin batera.



Eric Khoo Singapurreko zuzendaria, Príncipe zineman, *Ramen Shop / Una receta familiar* filma aurkezteko zain (Culinary Zinema).



Alfonso Cuarón –*ROMA* filma aurkeztu zuen (Perlak), Viktoria Eugenia antzokian–, argazkirako posatzen, Marisa Paredesekin batera –*Petra* filmeko protagonista (Perlak sailean programatua ere bai)–.



Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroaren bista, San Telmo museoan.



*El Ángel* filmeko (Perlak) ekoizleak, zuzendaria eta protagonistak.




*Las hijas del fuego* filmaren aurkezpena (Zabaltegi-Tabakalera), Tabakaleran, filmeko lantaldeak aurkeztuta eta Albertina Carri zuzendari argentinarrak bideratuta.



Tuva Novotny eta Pia Tjelta, *Blind Spot* filmaren (Sail Ofiziala, Emakumezko Aktore Onenaren Zilarrezko Maskorra) zuzendaria eta protagonista, hurrenez hurren.



Bárbara Lennie (*El Reino, Petra*), publikoari begira, Kursaaleko photocalletik.



Nadine Labaki zuzendari libanoarra, *Capharnaüm* filmaren aurkezpenean (Perlak), Viktoria Eugenia antzokian.



Maribel Verdú, amaierako galako aurkezlea, ekitaldiaren aurreko alfonbra gorrian.




Raúl de la Fuente eta Amaia Remírez, *Un día más con vida* filmeko zuzendaria eta ekoizlea, hurrenez hurren (Perlak, Donostia Hiria Publikoaren saria).




Euskal antzezleak, babesa ematen euskararen erabileraren aldeko Euskaraldia egitasmoari.



Fermin Muguruza, *Black is Beltza* filmaren aurkezpenean (Zinemira sailaren amaiera-ekitaldia).




Leire Apellaniz ekoizlea, *Mudar la piel* filmaren aurkezpenean (Zinemira sailaren hasiera-ekitaldia), Juan Barrero ekoizlearekin eta Ana Schulz eta Cristóbal Fernández zuzendariekin batera.



*Campeones* filmeko eta *Ni distintos, ni diferentes: Campeones* dokumentaleko protagonistetako bat, dokumentalaren aurkezpenean, Belodromoan.




*Arde Madrid* telesailaren zuzendariak eta protagonistak, Belodromoan, telesaila aurkezten.




Paco León (*Arde Madrid*), alfonbra gorrian.



Celia Rico Clavellino eta Anna Castillo, elkar besarkatzen, Lola Dueñas eta Kursaal 2-ko publikoa begira dituztela, *Viaje al cuarto de una madre* filmaren emanaldiaren ondoren (New Directors, Gazteriaren saria).



John C. Reilly aktorea, *The Sisters Brothers* filma aurkezten (Perlak), Jacques Audiard zuzendariaren eta Thomas Bidegain gidoilariaren aurrean.




*Gigantes* telesaileko lantaldea (Sail Ofiziala, lehiaketaz kanpo), Kursaaleko alfonbra gorrian.




Chris Hemsworth eta Drew Goddard, *Bad Time at the El Royale* filmeko protagonista eta zuzendaria, hurrenez hurren, (Sail Ofiziala, amaiera-ekitaldiko filma).




Bradley Cooper *A Star is Born* filmaren zuzendaria eta protagonista (Perlak), Viktoria Eugeniako alfonbra gorrian.























Selfieak: Bradley Cooper (1), Chris Hemsworth (2), Robert Pattinson (3), Timothée Chalamet (4), Danny DeVito (5), Claire Foy (6), Juliette Binoche (7), Ryan Gosling (8), Hirokazu Koreeda (9) eta Judi Dench (10).T